

### EXTEFANA IRASTORTZA HENDAIAR OLERKARIAREN GORAZARREZ

2018ko urriaren azken egunetan, isil-isilik, joan zitzaigun Hendaiako olerkari fina, isil-isilik eta bere familiakoen maitasunean, bizitza osoa eman duen bezala. Zendu zen momentuan 93 urte zituen. Sortzez Extefana Iribarren Ugalde zen, familia hendaiar bateko alaba.

#### **1. Familiaren kontuak eta haur eta gazte garaiak**

Lehen Gerla Handia zela eta, Ganix Iribarren, Belgikako frontera igorri zuten frantses armadarekin batera. Eraman zutenean 29 urte zituen eta ezkondu berria zen. Eraman zutelarik emaztea haurduen zuen. Gerlan denetik ikusi eta sufritu zuen eta beste euskaldun ainitzek bezala, frantsesa jakin eta ulertu gabe.

Jakina da, euskaldunen artean iheslarien eta desertoreen kopuru handia izan zela. Hori dela eta, mugatik gertu bizi ziren soldaduei ez zieten etxera etortzeko baimenik edo deskantsurik ematen. Baina lehen alaba sortu zitzaionean baime-na eman zioten. Hendaiako etxean hamabost egun pasatu zituen eta gerlara berriz itzuli behar zenean, aitak erran zion: *Zertarako joan behar duk bara, heure burua eta besteak biltzera? Nik pasatuko haut, beste aldera mendiz.*” Eta horrela egin zuen. Bi urte eta erdi berantago emaztea eta alaba ere

gau batez, mendiz, eta artzain baten laguntzaz, Berara pasatu ziren. Altzan izeba bat zuten eta haren baserrian hamabi urtez bizi izan ziren. Altzan zirela, 1925ean sortu zen Extefana.

Lau urte berantago, hau da, 1929an Hendaiara itzuli ziren, Zubernoako Aspots Berri laborari etxera. Orduan, poliziek atxilotu eta eskuak lotuta eta bi soldadu armaturen artean presondegira zuten eraman, gaiztagin baten modura. Gerla epaiketa egin zioten eta sei urteko espetxealdia ezarri zioten, baina kartzelara joateko beharrik gabe. Garai hartan Extefanak lau urte zituen.

Euskalduna izateagatik sufritu behar izan zuen. Bost-sei kilometrora zen Hendaiako frantses eskolara joaten hasi zen eta iseka eta zigorren artean frantsesez ikasi behar izan zuen.

Bigarren Gerla Handiak etxean harrapatu zuen Iribarren familia. Alemanak Zubernoatik barrena sartu ziren Hendaiara eta haien etxetik gertu maniobra militarrik egiten zituzten. Hitlerrek, Francorekin hitz egitera Hendaiara etorri zelarik, gaua bere trenean pasatu zuen, iribarnetarren etxetik metro gutxira. Berantago, alemanek tunel hori baliatu zuten ebatsitako eskulturak eta artelanak atxikitzeke.





## 2. Extefana Irastortza, olerkari

1948an Joxet Irastortza urruñarrarekin ezkondu zen, eta Urruñan finkatu zuten familia. 1990ean senarra hil zitzaionean, haren oroimenez, bere lehen olerkia egin zuen, eta orduz geroztik, Extefanak, trebezia eta sentimendu handiaz, olerkiak idazteari ekin zion, horietako nire Auxtin Zamora olerkari senperrak zuzentzen zuen *Hatsaren Poesia* izeneko liburuan plazaratu zituelarik. Irakur dezagun orain Extefanak senarraren oroigarritz idatzitako olerkia. *Laguna desagertu* izena du. Horratx:

*Maitatzen duzun lagun bat  
ez da hiltzen / baizik da desagertzen.  
Haren begitartea, / haren irri goxoa,  
haren eskuak eta bitzak,  
berak zuen izaitea  
zure izpirituan  
eta begietan*

*ikusten duzu,  
non-nabi izanik ere.  
Maite duzun lagun bat  
ez da hiltzen  
baizik eta desagertzen.*



*Extefana aitaren argazkia eskuan.*

Extefanen olerkietan familiaren berri ematen du ainitzetan,  
eta Aspots Berri habiaren berri aipatzen digu:

*Aspots Berri etxean bainaiz haunditua  
nire bortz ahizpekin aitamen onduan.  
Laborari etxean azkarki lanean,  
omore onarekin gu denak batean.*

*Leku xoragarria gure Zubernoan  
denak elkar lagunduz baitziren auzoak.  
Gure aziendak eta ogi sail haundiak,  
artoa ehotzeko ondoan errotak.*

*Mabainaren inguruan bazen alaitasun,  
ixtorioak kondatzen denak elkartasun.  
Familia guzia zen dena osasun  
kantua eta otoitza zela goxotasun.*

Bestelako gaiak era jorratu ditu Extefanak bere olerkietan. Kontrabandistei egindako olerkia biziki ederra da. Hona hemen hainbat pasarte:

*Erreka xokoetan uraren murmura,  
beraren bazterrean zubaitz ederrena  
eta xori guzieren kantu errepika,  
nibaurrek ezin ikus beren kolorea*

*Txantxangorria berriz heldu da leibora  
bere gosearekin papurrak jatera  
gero laster badoa aldaxka gainera  
adixkide maitea kantu emaitera.*

*Bibar goizean leiho izkinean  
hemen izanen naiz ni zure esperuan  
kezkatua bainago zu ez ikustean  
zerbeit pasa ote den bai zure bidean.*

Edota itsasoari begira egindakoak:

*Oi itsasoaren zabalera  
batzuetan urdina  
bertzetan berdea,  
eztia edo hasarrea  
maxamarra edo marea gora  
battelak kulunkan,*

*marinelak soketan  
itsas beleak arroka gainean,  
antxetak airean,  
hegalak bustiz itsasoan.*

*Oi itsasoaren ederra  
bainan batzutan zakarra,  
zure marruma entzutean  
izitzekoa da!  
Zer duzu horren kexu?  
zerbeit erran nabi ote duzu?  
Ez otoi gizonik har zurekin,  
ikusiz ama baten kezka.  
Leibo gibelean kanpora begira  
noiz agertuko den bere seme kuttuna,  
otoiztuz zeruko Jauna.*

Eta olerki aipamenekin bukatzeko, lerro hauetara ekarri nahi dut azken urteetan bere buruaz erraiten zuena *Amatxi bat* izeneko olerki sentikorrean:

*Ez naiz poeta, ez naiz idazlea,  
ez naiz bertsularia baizik amatxi bat.  
Nire barneko nabigabeekin  
eta nire pozarekin gibelerat begiratzearekin  
ohar bat egitearekin.  
Lur huntako bide haundiena  
dudala eta behar dudala segitu aintzina  
nire poema kaxkarrak agertuz  
iturritxako ura urrupatuz  
oroitzapen goxoak gogoratuz  
familia eta lagunak eskertuz*

*Itsas bazterreko haizea gozatuz.  
Lur huntako bidea bururatzean  
orduan argi eder bat agertuko zaitanean  
argia lagun zebarkatuko dut itsaso zabala.  
Han ageri den ubarteraino  
argia lagun sartuko naiz bizi berri batean.*


Eta bai, Extefana, jadanik itsaso zabala zeharkatu duzu eta uharte horretara iritsi zira. Bizi berri batean zira jadanik, eta hor ere, hemen bezala, poeta, idazle eta amatxi izaten jarraituko duzu.

### **3. Extefana Irastortza idazle**

Irakurri dugun azken olerkian Extefanak erraiten zuen bezala, olerkiak idazteaz gain, liburu bat ere idatzi zuen: *Amatxi Extefanaren oroitzapenak* izenekoa. Liburu eder hau Germaine alabak plazaratu dio eta familiakoen eta adiskideen artean banatu. Narrazio bixi-bixiak, Hendaiako euskaraz kontatuak, jadanik desagertu den laborari mundu baten lekuko eta jakile. Liburu honek badu balio familiar ikaragarri handi bat, zalantzarik gabe, baina horretaz gain, arlo etnografikoan, linguistikoan eta historikoan ere baditu bestelako balio ukaezinak.

Biziki ongi eta naturaltasun osoz kontatzen digu nolakoa zen bizimodua bere haurtzaro eta gaztarako Zuberno auzategian eta baita Hendaian eta Urruñan ere, zer-nolako gizartea zen, laborarien bizimodua, gerlako kontuak, alemaniar soldaduekiko harremanak, kontrabandoa, Churchill Bordaberrin izan zenekoa, garai bateko enterramenduak, Teilatubaitako Mentura Zopitekoaren istorioa, Zubernoako zenbait le-

kuren izenak, Hendaia zaharreko laborarien eta bordarien etxe zerrenda, su bazterrean entzundako istorioak, pilota partidak Borda Berrin, Joxemiel Barandiaran bisitatzeko Ataunera egindako bidaia, Baionako bestak... eta beste ha-  
maika kontu.



Zoritzarrez Extefana Irastortzaren idazlanak hor-hemenka barreiatu eta erdi ahazturik daude, olerkiak lehen aipatu *Hatsaren Poesia* –ren liburuetan eta liburua hainbat senide eta adiskideren eskuetan. Germaine alabak lan polita egin du amaren liburua plazaratzen eta zabaltzen, baina Extefanak gehiago merezi duelakoan nago. Haren olerkiak bildu beharko



lirateke eta oroitzapen liburuarekin batera beste edizio zabala-  
go batez argitaratu eta hedatu. Bitartean, Extefana, hor, itsaso  
zabala zeharkatu ondoren, argia lagun, iritsi zaren uharte ho-  
rretan zaudela, har ezazu euskaldunon esker ona, euskalduna  
izan zarelako beti, gure mintzaira maite eta erabili duzulako,  
eta gainera horrelako olerki eta oroitzapen ederrak idatzi ditu-  
zulako. Ohore handia da euskaldunentzat zu bezalako olerka-  
riak ukaitea.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran*  
Urruñan, 2018ko azaroaren 8an.